

#CORRESCALES 2016
#KORRIKAPREKARIOA

Europako 2. errelebo-lasterketarik luzeena
oraingo elkartasun proiekturik handienarentzat

4 egun
80 korrikalari
Guztientzako erresistentzia kutxa

Otsailaren 18tik 22ra

goteo.cc/correscales
@Correscales2016

Otsailaren 18an Bilbon hasiko da [Correscales](https://goteo.cc/correscales), eta Komite Internazionalistok bat egiten dugu honekin, prekarietatearen aurka eta elkartasuna lantzeko Movistarreko teknikariek bultzatutako Bilbotik Bartzelonara lau egunetan burutuko den 800kmtako Korrika Prekarioa alegia.

lazko 80 eguneko greban gertatu zen bezala, internazionalistok era aktiboan hartuko dugu parte, kilometro internazionalistan gure aldarriak zabalduz eta Bilboko beste mugimendu eta erakundeekin batera prekarietatea eta hau eragiten duen kapitalismoa salatuz; kapitalismoa delako langileok eta herriok zapaltzen duen sistema kriminala, langileen eskubideak urratzen

dituen eta munduan zehar gerrak eta injerentzia inperialistak zabaltzen dituen sistema hain zuzen.

Honen aurrean izango gaituzte. Gure indarra batasunean datza, ezinbestekoa baita hain indartsua den arerioa garaitzea bananduta bagaude. Eta horregatik Movistarreko teknikarien grebak eta ekintzak eredugarriak izaten ari dira, mugimendu eta erakunde ezberdinak euren borroka gurea balira bezala hartzen ari garelako. Honela, guztion artean prekaritateari aurre egiteko eta beste langileen baldintzen defentsan jarduteko erresistentzia kutxa osatzen ari gara.

Elkartasunaz eta borroka sistemak irauliko dugu... beraz, internazionalistok korrika egin dezagun!

Correscales aurrera!



+Video

```
swfobject.embedSWF('http://www.vimeo.com/moogaloop.swf?clip_id=149844580&server=www.vimeo.com&show_title=1&show_byline=1&show_portrait=0&autoplay=0&fullscreen=1','avreloaded0','555','340','9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',false,{wmode:'window',allowfullscreen:'true',scale:'showall',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'},{id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});
```